

Herritar agurgarria:



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

Lerro hauen bidez azaldu nahi dizuet zein den gure udalerrietako argiteria publikoan egiten ari garen aldaketen arrazoia:

Garatzen ari garen proiektua azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuaren mende dago; dekretu horrek kanpoko argiztapena duten instalazioen eraginkortasun energetikoari eta EA-01etik EA-07ra arteko jarraibide tekniko osagarriei buruzko Erregelamendua onartzen du.

Proiektu horren abiapuntua izan dira mankomunitatutako udalerrri bakoitzean egin den argiteria publikoaren instalazioetako ikuskaritza energetikoak. Espezializatutako auditoretza batek argiteriaren egoera aztertu zuen eta instalazioak hobetzeko proposamenak egin zituen.

Hona hemen hobekuntza horien helburuak: energia kontsumo iraunkorra lortzea eta argi-kutsadura murriztea.

Txorierriko Mankomunitateko herri guztietako jarduketak amaituta, beste argi-neurketa batzuk egingo ditugu, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

Besterik gabe, har ezazue nire agurra.

Lander Aiarza Zallo
Mankomunitateburua

Proiektu orokorra, honako helburu dituena:

- Energia iraunkorraren kontsumoa
- CO₂ isurien murrizketa

ARGI-KUTSADURA



Gehiegizko argiztapena zuzentzea



Argiztatu, behar den lekuan, behar den momentuan eta argi kopuru egokiarekin

Instalazioak hobetzea eta legetara egokitzea

KUDEAKETA ENERGETIKOA

- Hornikuntza elektrikoa kudeatzea
- Energia-kontsumoaren kontrola

ARGITERIA PUBLIKOAREN MANTENTZE—LANAK

- Mantentze-lan prebentiboko eta ikuskaritzako plana
- Arauzko egiaztapenak eta ikuskapenak



INBERTSIOA, BERRIKUNTZAN ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAN

- Eraginkorak ez diren instalazioak ordezkatzeta
- Argi-kutsadura ezabatzea

FUNTZIONAMENDURAKO BERMEA

- Instalazioak funtzionamenduan eta egoera onean mantentzea
- Zerbitzua, urtean 365 egunetan eta 24 orduz: **94 497 00 36**

